



III. ATALA

EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila

Ebazpena, 2024ko urriaren 30ekoa, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde-ordezkariera, Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko jaiegunen 2025eko egutegia ezartzen duen 2024ko uztailaren 18ko Ebazpena aldatzen duena.

Hori guztia, Lan eta Enplegu Sailaren apirilaren 23ko 49/2024 Dekretuaren 2. artikuluan (2024ko maiatzaren 8ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 89. zenbakia) eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 07/2021 Dekretuaren 14.1.f) artikulua araber, Bizkaiko Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde-ordezkaritari dagokio bere lurralde historikoan bi egun ezartzea, udalek proposatuta, tokiko jaieguntzat, lanerako baliogabeak, ordainduak eta berreskuraezinak.

Horretarako, dekretu horren 2.2 artikuluan adierazten den bezala, «udalek beren proposamenak egin eta dagokien lurralde-ordezkaritzara bidali beharko dituzte hilabeteko epean, dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera».

Bizkaiko Lurralde Historikoa osatzen duten udal guztiei kontsulta egin ondoren, 2024ko uztailaren 18ko Ebazpenean horretarako proposatu eta jasotako tokiko jaiegun guztien zerrenda xedatzen da.

Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2024ko uztailaren 30ean (146. buletina).

Ebazpen hori argitaratu ondoren, alde batetik, 2024ko urriaren 22an, Atxondoko Udalaren idazkia jaso zen, eta, bestetik, 2024ko urriaren 29an, Usansoloko Udalaren idazkia. Idazki horretan, lehenago egindako proposamenak aldatu zirela jakinarazi zen, proposamen horiek igandean zirelako.

Hortaz, 2024ko urrian jasotako idazkiak kontuan hartuta, nire esku dauden lege-eskumenen araber, ordenatu dut Atxondoko Udaleko 2025eko herri jaia ekainaren 30ean, astelehena, izango dela. Usansoloko Udaleko jaiegunak abenduaren 1ean, astelehena, izango dira.

Bilbon, 2024ko urriaren 30ean.—Bizkaiko Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde-Ordezkarria, Verónica Fernández Fernández